



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

2.014KO APIRILAK 30

OHIKO PLENOA

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Oihane Arzalluz Beobide.
Leire Beristain Mendizabal.
Luis Berrondo Lanceta.

Bertaratu gabeak:

Iñaki Irulegi Apalantza.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita hamarreko hogeita bat ordu eta hogeita bost minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2014KO APIRILAREN 3KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak 2014ko apirilaren 3ko akta onartzen den galdetzen du eta aho batez onartzen da.

BIGARREN PUNTUA:

2014 EKITALDIAN KULTUR ETA KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Ikusirik 2014 ekitaldian kultur eta kirol iharduerak egiteko dirulaguntzak eskatzeko epea martxoaren 15ean amaitzen zela.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Ikusirik 2014 urteko aurrekontuetan 1.0000.481.451.00.01 partida zenbakiko kultura dirulaguntzetarako 4.500 € onartu direla.

Ikusirik 2014ko otsailaren 6an egindako Udalbatzan Erniozaleak Kultur Elkartek eta Errezilgo Udalaren arteko hitzarmena onartu zala, Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den ibilaldiaren antolakuntzarako.

Ikusirik hitzarmen honen arabera Errezilgo Udalari gutxi gora behera 450 € ordaintzea dagokiola.

Ikusirik 4.500 €-ak banatzeko Erniozaleak-i ordaindu behar zaion kantitatea kendu dala, hau da, aurkezturiko 5 eskatzaileen artean 4.050 € banatu behar direla.

Ikusirik epe honetan zehar, ondorengo 5 eskatzaile aurkeztu direla beraien proiektuak ondorengoak direlarik:

- 1.- Gaztetandik : 7.100,00 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 5.200,00 €
- 3.- Erniarraitz (bertsolaritza): 1.460,00 €
- 4.- Toki Alai Guraso Elkarte: 2.152,00 €
- 5.- Errezilgo azoka: 1.770,00 €

Udalbatzak, aho batez, eta Batzordearen proposamena kontuan izan ondoren, ondorengo dirulaguntzak ematea eta proiektuaren %60-a ordaintzea erabaki du:

- 1.- Gaztetandik : 1.328,47 €
- 2.- Atala (kultur ekintzak): 1.236,22 €
- 3.- Erniarraitz (bertsolaritza): 369,02 €
- 4.- Toki Alai Guraso Elkarte: 747,27 €
- 5.- Errezilgo azoka: 369,02 €

Beraz, 2014 urterako kultur eta kirol iharduerak onartuta geratzen dira.

Luis Berrondo zinegotziak komentatzen du Festa Batzordeak iharduerak antolatzeke ematen duen dirulaguntza jakinerazi egin beharko lukeela.

HIRUGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

Ez dago ordainagiririk.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

**LAUGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2014ko martxoaren 25etik (44/2014 Alkatetza Ebazpena) 2014ko apirilaren 24ra (60/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**BOSTGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Maria Jesusek aipatzen du berziklapena egiteko gune egokirik ez dugula aurkitu eta berak Domusa ondoan daukan terreno txiki baten erabilera Udalari zeditzea proposatzen du. Denak jakinaren gainean geratzen dira.

2.- Maria Jesusek aipatzen du Iturtxotik Harrobitxuloko ur depositura hodiak berritzeko obran Rafael Aranburuk bere terrenotik pasatzeko baimena emango duela, baina labaderoa Izarrera eramateko baldintzarekin. Lan hau 1.800 € kostatzen da. Gai hau Arkitektoarekin hitzegin ondoren, Arkitektoak labaderoa agian katalogatuta dagoela esan zuen eta Diputazioko teknikoak etorri beharko direla hau ikustera. Beraz oraingoz itxaron beharrean gaude.

3.- Oihane Arzalluzek dio Arau Subsidiarioen berritzea herritarren partehartzearekin egin nahi dala. Gai hau aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiari dirulaguntza eskatu diogu eta 3.707,00 €-tako dirulaguntza eman digute. Eta gai hau martxan jartzeko Batzorde bat osatu beharko litzatekeela aipatzen du.

Luis Berrondok dio gai hau oso konplikatua dala eta aurretik irizpide batzuk landu beharko liratekeela. Aurretik gaia agian zinegotzien artean landu eta gero sortuko den Batzordera planteamendua eman.

Leire Beristainek dio totxoa oso haundia dala eta puntuz-puntu aztertu beharko litzatekeela.

Oihane Arzalluzek dio puntuz puntu dena aztertuko dala eta herritarren artean puntuak adostu beharko liratekeela.

Luis Berrondok dio bere iritzian hasieran zinegotzi guztiak Koldo Arkitektoa rekin elkartu beharko liratekeela zein planteamendu dagoen jakiteko.

Leire Beristainek dio prozesu luze honek konstantzi haundia eskatzen duela.


Gai honen inguruan denak adostasuna agertzen dute.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bi ordu eta hamar minutu direnean,
Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

H^l: *[Handwritten signature]*



Maria Arriola